

I.Kopla idatzien Txapelketa Araba ESI

Oinarriak:

1. ARABA ESIko Euskara Zerbitzuak I Kopla Idatzien Txapelketan parte hartzera deialdia egiten dio Araba ESIko langile guztiei.
2. Parte hartzaileek **bakarka zein taldeka** osa ditzakete koplak.
3. Kopla sortak **gutxienez hiru eta gehienez bost kopla** izango ditu. Letra berria izango dute, eta doinu herrikoietan kantatzeko modukoak izango dira.
4. Kopla txikia zein handia izan daiteke, eta sorta bakoitzari izena jarri beharko zaio.
5. **Gaia libre** izango da, halere, ez da onartuko edozein pertsona, elkarte edo erakunde publiko edo pribaturen kontrako irain edo gaitzespen larririk duen letrarik.
6. Kopla sortak, 2019ko martxoaren 11 baino lehen helbide honetara bidaliko dira:
euskara.arabaesi@osakidetza.eus
7. Kopla idatzien txapelketako **epai mahaia Felipe Zelaieta eta Juan Mari Juaristi** bertsolariek osatuko dute, eta martxoaren 21eko bertso bazkarian bertan emango dute haien epaia. Hauen erabakia eztaba daezina izango da.
8. Jasotako kopla guztiak fotokopiatu eta bertso bazkarian kantatuko dira.
9. Sari nagusi bakarra egongo da, halere, epai mahaiak hala erabakita, ohorezko aipamenak egon daitezke.

Sari nagusia:

**Arabako Bertsolari Txapelketako finalerako sarrera +
KORRIKako kamiseta**

10. Lehiakideek oinarri hauetako puntu guztiak osotasunean onartzen dituzte parte hartzean.

FELIPE TA JUARISTI

BIOK BURUZ BURUZ

ETA BERTAN PRIMERAN

PASATUKO DUGU

Koplak bidaltzeko epea martxoaren 14ra arte.

euskara.arabaesi@osakidetza.eus